



HILARIS LANDETXEA KONTRATATZEKO ETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN INGURUKO ARAUAK

Etxeak 12 pertsonentzako edukiera du eta osorik alokatzen da. Erreserbak, gutxienez, 2 gauetarako egingo dira behe-denboraldian; eta, gutxienez, 4 gauetarako goi-denboraldian.

Establezimenduaren funtzionamendu arauak bezeroen eskura egongo dira. Bertan, bezeroek euren egonaldian zehar bete behar dituzten arauak, zerbitzu ezberdinak emateko ordutegia, hala nola, bezeroaren eskura uzten diren tresna eta aparatuen funtzionamendurako argibideak adierazten dira.

PREZIOAK

Alokairu prezioa ostatu-gau edo egunari dagokio, hau arratsaldeko 17etan hasi eta eguerdiko 12etan amaitzen delarik. Ordu horretarako ostatua uzten ez bada, egonaldia beste egun batez luzatuko da, aldez aurretik bezeroak eta jabeak beste ordutegi bat adosten ez badute.

Prezioek BEZa (%10) barne hartzen dute, eta prezioen barruan etxea alokatzean definitzen diren zerbitzu guztien erabilera sartzen da.

AURRERAKINA

Erreserba baieztatzeko alokairu osoaren %40ari dagokion aurrerakin bat egingo da. Aurrerakin hori postazko igorpen edo transferentzia bitartez egin daiteke, azalpenean erreserba zenbakia, sarrera data eta irteera data adieraziz.

ORDAINKETA ETA FIDANTZA

Landetxera iristean, bezeroak egonaldiaren kostu osoa ordaindu beharko du, eta bezeroak egindako aurrerakina fidantza gisa atxikiko da irteera arte. Kalteak eragiten badira, hauen kostua fidantzatik deskontatu daiteke.

BALIOGABETZEA

Baliogabetzea okupazio eguna baino, gutxienez, 7 egun lehenago eta, gehienez, 15 egun lehenago jakinarazten bada, egindako aurrerakinaren %50 galduko da.

Baliogabetzea okupazio egunaren aurreko 7 egunetan zehar jakinarazten bada, bezeroak seinale edo gordailu gisa egindako aurrerakin osoa galduko du.

Bezeroak, aurrez ohartarazi gabe, ez badira egonaldia hasteko adierazitako eguneko 20ak baino lehen iristen, erreserba baliogabetu dela ulertuko da, aldez aurretik bezeroak eta jabeak sarrera ordu ezberdin bat adosten ez badute.

SARRERA ETA IRTEEREN ERREGISTROA

Barne Ministerioaren 1992ko otsailaren 14ko Aginduari jarraiki, landetxe guztiek ostalarien sarrera eta irteera guztien kontrola eramango dute liburu-erregistro baten eta bidaiarien sarrera-gaztiguen bitartez. Landetxera iristean, bidaiariak inprimakiak behar bezala bete eta sinatuko dituzte, erregistro-orriak Polizia-etxean edo Guardia Zibilaren Komandantzian aurkeztea derrigorrezkoa baita.

INBENTARIOA

Landetxera iristean, bezeroari existitzen diren tresna, altzari edota osagarrien, eta hauen kopuruen zerrenda entregatuko zaio. Inbentario hau bezeroak alde egin baino lehen egiaztatuko da.

ESKULIBURUA

Bezeroari eskuliburuak entregatuko zaizkio etxetresnak eta gainerako instalazioak zuzen erabili ditzan (**barbakoa, tximiniak, Spa, etxetresnak, jolas-gela**).

GARBITASUNA

Bezeroak iristean aurkitu dituen garbitasun, funtzionamendu eta erabilera baldintzetan utzi beharko du etxebizitza.

GONBIDATUEN ONARPENA

Landetxeen funtzionamendu arauak establezimenduaren barruan gonbidatuak onartzeko aukera arautu ahal izango dute, hala nola, onarpen horren baldintza eta moduak. Xedapen hau haustek egonaldia aldez aurretik amaiarazi dezake.

Establezimenduan gonbidatuek egindako ostatu-gauak, ondorio guztietarako, ostatu plaza baten okupazio gisa ulertuko dira.

MASKOTEN ONARPENA

Jabearekin kontsultatu.

BEZEROEN PORTAERA

Bezeroek instalazioak eta, orokorrean, ingurune guztia, bai kulturala bai naturala, errespetatu ditzatela espero da. Hala ere, bezeroen iradokizun guztiak eskertuko dira. Bestetik, bezeroaren egonaldia aldez aurretik amaitutzat eman daiteke, honek gizalege, higiene edo bizikidetzaren arau arruntak hausten baditu, hala nola, establezimenduaren titularrak berariaz debekatzen badu ere, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak (30. artikulua) baimendutako ostatu plazak gainditzen badira.

Goiko ataletan jasotzen ez diren Nafarroako landetxeen funtzionamendu arauak landetxeetako ostatua arautzen duen ekainaren 28ko 243/1999 Foru-dekretuak xedatutakoaren arabera ezarriko dira (NAO 105 zk.; 1999/08/23).